

EAE-KO euskararen Legea > 25 urte



Miren Azkarate Eusko Jaurilaritzako Kultura sailburua hizkuntz politikari buruz hitz egiten, Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza eta Kultura Batzordean. JUANAN RUIZ / ARP

25 urteko eskarmentuz, etorkizunari begira

INAKI PETXARROMAN
Donostia

Euskararen Legea orain berriro onartu beharko bagenu orduko adostasuna ez litzatekeela lortuko adierazi dute zenbait alderdi politikok. Legeak ekarri dituen onurak nabarmendu dituzte batzuek; haren gabeziak bestetuek. Kazeta honek alderdiei 25 urteotako balantzea egiteko eskatu die. PPK ez die erantzun galderari.

Josune Ariztondo (EAJ)

1 Balantzea baikorra da. Egoera gutxituan dagoen hizkuntza aldeko legea ez izatetik, euskal hiztunen eskubideak aintzakotzat hartu eta bermatze bidean jarri dituen legea izatera etorri gara. Baina legearen efektu biderkatzailea, duda barik, euskal gizartearen zati handi batek erakutsitako jarrera eta euskararen aldeko konpromiso eraginkorrari eusten dioten euskaldun eta euskaltzaleek ekarri dute.

2 Legeak babesa eta prestigioa esan nahi du, aurrekontuak eta hizkuntza gabeziak eta beharrak bistaratzea ekarri ditu. Euskaldunok lotsatik harrotasunera egin dugun ibilbideak badu zerikusirik aitorza legalarekin. Euskararen aldeko jardunak aurkariaren ekitza bortitzen erreak-

Euskararen Legeak ondorio positiboak ekarri dituela uste dute alderdi politiko gehienek, baina hutsuneak ere ikusten dizkiote.

zioa motorra zuenetik bizikidetzarako baliabide gisa ulertzera etorri gara. Ez dut uste lege hutsez horrelakorik posible denik, baina ezta ere euskararen aldeko eta, aldi berean, adostasun maila zabaleko lege barik.

3 Oinarritzakoa, ulerterraza, printzipioak eta balioak ondo uzartzen dituenak, garapen zabala bere baitan har dezakeena, eta adostasun zabalez onartua, hori dena da, nire ustez, duela 25 urte onarturiko Euskararen Legea. Oso tresna egokia, horrexegatik, aurrera egiteko.

4 Ez dago munduan giza produkturik hobetu ezinik ez due-

nik. Baina inoiz egotzi izan zaion hutsune nagusietako bat esatera ko—Euskal Herriko Autonomiaz gaindi ezin erabili izatea—, ez da horrela, urteetako garapenak erakutsi digun bezala: batetik, euskaraz egiten edota bultzatzen den edozein produktu, edota zerbitzu Euskal Herri osoan erabiltzen delako, eta, bestetik, euskal hizkuntzaren eremuan eragiteko aukera zabala espresuki eskaintzen duelako.

5 Bere balio nagusiekin bat narator. Hortik aurrera, bada Euskararen Aholku Batzordea, herri aginteei gomendioak eta gogoetak eskaintzeko. Hori horrela, eragile horien guztien iritzia eta gogoetak herri erakunde demokratikoekin partekatuz egin osteko hizkuntza politikan dut, oraingoz, neure konfiantza.

Batasuna

1 Legearen inguruan, balorazio eskasa egiten dugu. Munduko herritarren, herrien eta hizkuntz komunitateen arteko berdintasun-

naren printzipio unibertsalaren ondorioz, euskal herritarrok esku-bidea dugu euskara Euskal Herriko hizkuntza ofizial bakarra izan dadin, Europako estatuen hogeitaz hizkuntza ofizialek duten pareko ofizialtasunarekin. Norbaitek esango du frankismoaren erabateko debekuarekin baino hobeto gaudela, noski, baina oso urruti gaude ofizialtasun bakarretik. Euskararen Legeak ez du balio Euskal Herria euskalduntzeko eta haren garapen iraunkorra bermatzeko.

2 Ahaleginak egin dira eta lorpenak ere izan dira, gehienetan herri gogoaren bultzadak eraginda, baina horrek ez du eragin euskararen normalizazioa, bultzadak oztipoak baino urriagoak izan direlako. 25 urte ondoren, Jaurilaritzaren 2005-2009ko egitasmoak honako joera negatibo hauek zehazten ditu: «Euskararen erabilera urria eta guztiz irregularra da», «Euskaldunak bakarrik hartuz gero, euskararen erabilerak behera egin du», «ezin da euskararen gerora bermatutzat eman». Horrek esan nahi du euskara galtzeko arriskua benetakoa dela.

3 Euskararen lege berria ezin bestekoa da. Gaztelaniaren eta euskararen arteko berdintasun formala ez da berdintasun erreala. Gaztelaniaren aldeko eruditik euskararen aldeko erudura joan

behar dugu. Euskara Euskal Herri osoan, hizkuntza nazionala, ofiziala eta lehentasunezkoa izan dadin, Espainiako eta Frantziako estatu esku-sartzerik gabe.

4 Derrigorrezkoa da menpekotasunezko harremanak bukatzea, hizkuntzen arteko berdintasunezko harremanak eraikitzea, eta hizkuntz komunitateen arteko elkartsunezko harremanak bideratzea. Euskal Herria euskalduntzeko, estatuen kultur fobiak bukatu behar du.

5 Aldaketa ezinbestekoa da. Izan ere, hizkuntzen erabilera soziala hizkuntz politikaren ondorio da, hizkuntz politikaren oinarria ofizialtasuna da, eta ofizialtasunaren euskarria legea da. 25 urteko emaitza eskasek eta joera negatiboak neutralizatzeko ezintasunek irlanderatze prozesua erakusten dute. Horrela, hizkuntz gatazka konpontzea eta mendeetako asimilazioaren injustizia gainditzea ezinezkoa da.

Isabel Zelaa (PSE-EE)

1 Balorazio oso ona da. Legeak bere helburua lortu du, euskara gizarteko alor guztietan presentegotea ahalbidetu baitu. Herri honen historian ez da inoiz halakorik gertatu, ezta garai foraletan, zeintzuetan euskara ez baitzen hiru lurraldetako Batzar Nagusietako hizkuntza. Legeari esker, euskara koofiziala da irakaskuntzan, Administrazioan, zerbitzuetan, hedabideetan, literatur sorkuntzan... Azken finean, euskara plaza publikora irten da, hamaika aldiz eskatu den legez.

2 Euskarara ageriko normaltze prozesu bat ari da bizitzen, oraindik aurrerago egin behar bada ere. Niri dagokidanez, esaterako, legeak posible egin du ni euskalduntzea. Eta, hezkuntzaaren alorrean, adibidez, Euskararen Legeak posible egin du irakasleria- ren euskalduntzea, eta hori aurretik gure historia osoan ez dugu eza gutu.

3 Baliagarria da, baina legearen espirituari eusten bazaio. Ez da ahaztu behar lege hau akordio politiko zabal baten ondorioz sortu zela. Geroztik egin diren hizkuntz politika batzuek zatiketa bultzatu dute: ez dute elebitasun integratzailearen bila jo, baizik eta elebarkatasun baztertzalearen bila. Akordioaren bidez, aurrera egin ahal izango dugu. Izan ere, euskarari ongi datorkio akordioa, eta ez zaizkio komeni inposizio, jarrera sektarioa eta lelo doktrinatzaleak.

4-5 Goizegi da horretaz zerbaite esateko. Legeak 25 urte bete ditu, eta tarte horretan aztertu behar diren aldaketak gertatu dira, segur aski. Agian, unea heldu da, presarik gabe—baina etenik gabe—azter dezagun legeak zer ondorio izan duen, zer fruitu eman dituen, eta baita berrikusi beharko liratekeen hutsuneak ere, hutsuneak egonez gero. Izan ere,

■ GALDERAK

1. Euskararen Legeak 25 urte bete ditu. Zer iruditzen zaizu legea? Zer-nolako balantzea egingo zenukete?
2. Zer eragin izan du euskararen normalizazioan?
3. Aurrera begira tresna egokia izaten segitzen duela uste al duzue?
4. Hutsunerik ikusten al diozue?
5. Legean zerbaite aldatuko zenukete etorkizunera begira?